

Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak, teknologia eta enpresaren inguruan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko, laguntzak ezarri ditu 2013. urterako (2013-10-21eko EHAA)

Deialdiaren helburua:

Deialdiaren helburua da euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektorretako zientzia, teknologia eta enpresaren inguruan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzea.

6 laguntza deitu dira prestatzen ari diren ikertzaileentzako programaren barruan. Laguntza hauek ondoz ondoko lau urteko iraupena izango dute. Eta berriz, 10 laguntza teknologo gazteak prestatzeko programaren barruan, hauek bi urteko iraupena izango dute.

Onuradunak: (Urriaren 23ko 185/2007 Dekretuko 5 artikulua)

Ezarritako baldintzen artean, besteak beste hurrengo hauek bete beharko dituzte:

- a) Goi-mailako unibertsitate-titulua izatea prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzak eskuratzeko. Teknologoak prestatzeko laguntzak eskuratu ahal izango dituzte goi- edo erdi-mailako unibertsitate-titulua dutenek. Titulu guztiek ofizialki onartutakoetara homologatuta egon behar dute.
- b) Titulu hori lortzeko ikasketak gehienez urteko deialdiaren agindua eman aurreko lau urteetan amaitu izatea. Ingeniari teknikoek eta goi-mailakoek karrera-amaierako proiektua gaindituta izan behar dute.
- c) Teknologo gazteak prestatzeko laguntzei dagokionez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren aldetik antzeko ezaugarriak dituen beste laguntzarik jaso ez izatea.

Eskaria nola egin:

2013ko ekitaldiko laguntza-eskaerak aginduaren II. Eranskinean dagoen eredu normalizatua erabiliz aurkeztu behar dira Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiarren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Eskabidearekin bat, urriaren 23ko 185/2007 Dekretu 10. artikuluan, adierazitako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da. Orobat, komeni da proposatutako curriculum vitae eredia erabiltzea (II. Eranskinaren gehigarria).

Interesdunek laguntza eskatu ahal izango dute edozein programatan, eta I. eranskinean programa bakoitzetarako jasotako 3 gai aukeratu ahal izango dituzte gehienez.

Eskaerak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, agindu hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita: **2013ko azaroaren 9a.**